

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko abenduak 17 • 1209. zenbakia



LAGUNTZEA HELBURU DENEAN

eguzkitako
2M0
58€

Kontuztatuz zuzen konparatu errealizazioak.



Gabonetan
oparitu mí

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

+ osasun gida

Dentistak



arar
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51

www.clinicadentalarar.com

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektiboki handienak hantutako zentroa



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramon Fdez. Oubier

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - 1.º eta 943 206 044



bista eder
clínica dental - Hertz Klinika

Deitu | 943 70 00 02

bista eder, 19
www.bistaeder.es

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. uk. 843-702886



Unzaga Plaza
Hertz Klinika - Clinica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5-4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Fisioterapia

- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- PATRIKIA
- TRATAMENDUAK
- KINESIOLOGIA + FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ZENTRIA

ARRAQUETA, 20
Tel. 943 53 06 42
www.ane-mendia.com



EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko edo. 943 537 076 - 688 884 808
www.eibarclinicadental.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugiborro: 677 551 850

Ginekologia



GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA

09.00 eta 13.00 orain eta 15.00 eta 20.00 orain
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. edo. Tfnos. 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoak / PADI
Ortodontzia / implanteak / laser teknologia

Erebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



Money, money, money...

Eibarko Udalak hitzarmena sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin 2012an, Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko proiektua finantzatzeko. Udalak 9 milioi euro jartzen zituen, eta ETSk -Eusko trenbide sarea- beste 9 milioi euro. Aurreikuspena 18 milioi eurokoa zen. Badirudi proiektu estrategikoa derizotena finantzatzea ez dela inoiz arazo izan.

Orain jakinarazi digute proiektu hau NEXT funtsen diruarekin finantzatu nahi dela, 16 milioi euro ingururekin, eta gainerakoa udalak eta ETSk jarriko luketela, 17,4 milioi eurora iritsi arte. Kontuan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena 20 milioi eurokoa dela, Next Euskadi Berreskuratzeko eta Erresilientzia programan jasota agertzen denez.

Paseoa proposatzen duen proiektu honetarako 2012. urtetik finantzaketa bazegoen, eta orain Europari eskatu diogu. Ezin al zen dirua beste proiektu batzuetarako eskatu, honetarako bagenuen-eta?

Gainera, esan digutenez, udalak gastatu behar zituen 9 milioi euroak Eibarko Ekialdeko eremu osoa biziberritzeko inbertituko ditu orain. Oso ondo! Ez litzateke logikoagoa 18 milioi euro inbertitzea Eibarko Ekialdean, eta 9 milioi euro paseoan? Baina, hemen, alderantziz da. Alde batetik, Eibarko Ekialdea dugu, urte asko eta askotan, gabezia eta premia handiak dituen: 9 milioi euro; eta bestetik, -inguruko bizilagunek nahi ez duten- paseoari: 18 milioi euro. Arraroa dirudi, ezta?

Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmeneko beste 9 milioi euroak, ETSk 2012an jarri behar zituenak, ez al dira orain Eibarren inbertituko? Diru hori beste hiri batera doa? Hala bada, badirudi azkenean Eibarren inbertituko den dirua ez dela kontatzen digutena bezain handia. Ez al da izango Eibarrek inbertsio estrategikoen beharrik ez duelako? Edo, ze demontre gertatzen da asunto honetan?

Ah ze milioi dantza!!!

Milioi asko eta, agian, ideia gutxi eta zalantza larregi.

Joseba Lopez

Euskeraren egun tristia

Gaur, abenduak 3, ohetik jaiki eta leihora, eguna ez dot gustora hasi. Alde batetik, eurixa, eta, bestetik, udaletxera begiratu eta tristuria sentidu dot. Ez nau harritsu, urtero gertatzen dalako berdiña eta urtero dakatelako sensaziño berdiña. Gure udalak euskeraren eguna ez dau ospatzen, ez behintzat herrixak ikusteko moduan. Aurten egoeria dala ta kalia ezin izan dogu ospatu, baiña herrixa ezin da girotu?? Urtero moduan, aurten be euskeraren egunian Eibarko udalak SUSPENSO!!

G.U.N.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NORA EUZKIXA, HARA ZAPIXA.- Errefrau ezagunaren aldaera.

NORAEZIAN GELDITU.- Zer egin ezean gelditu. "Aizkorriko basuetan otsuak eta basurdak urritu ziranian noraezian gelditu ziran gure ehiztariak".



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Mireia Ugarteburu
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Barrenan dagoen Hijos de A. Gabilondo enpresaren lursailak eta eraikinak erosiko ditu Udalak

>>> Udalak akordio bat lortu du Hijos de A. Gabilondo enpresaren jabeekin, Barrena kaleko 1-3 zenbakietan dauden lursailak eta higiezinak erosteko. Horren arabera, 2.750.000 euro ordainduko ditu Udalak, “hasierako salmenta-prezioa baino askoz gutxiago” ordainduta. Udaletik esan dutenez, “erabakia beste aurrerapauso bat da Barrena kalea eta ingurua berronertzeko planetan, PSE-EEK eta EH Bilduk duela aste batzuk lortutako akordioaren baitan”.

Mahai gainean dauden aukeren artean, gaur egungo eraikinaren zati bat birgaitzea eta auzoari zerbitzua emango dion udal ekipamendu bihurtzea egongo litzateke: “Horrek lagunduko du ingurunea biziberritzen eta udalerriko beste eremu batzuetako bizilagunentzat erakargune bilakatzen”, azaldu dute. Halaber, aztertuko da lurzati horretan inguruko bizilagunentzako aparkalekua sor daitekeen.

Jon Iraola alkatearen berbetan, “garrantzi handiko era-



giketa da, eta hiriko ekialdeko eremuari eman nahi diogun aldaketa estrategikorako lehen urratsak ematea ahalbidetuko du”. Bi taldeak (PSE-EEK eta EH Bildu) bat datoz esatean “Barrena kaleko berronertzeko estrategikoa dela eta garrantzi handikoa herriarentzat”. Bestalde, Josu Mendicute EAJ-PNV Udal taldeko bozeramaileak ere pozik hartu du albista, proiektua hobetzen laguntzeko prest dagoela gaineratuz.

COVID ziurtagiriaren erabilera eremu gehiagotara zabaldu da

>>> Aste honetan onartu du EAeko Auzitegi Nagusiak COVID ziurtagiriaren erabilera ostalaritza eremuetara, zentro soziosanitarioetara eta zahar etxeetara zabaltzeko Eusko Jaurlaritzak egindako eskaera, betiere azken hamalau egunetako intzidentzia-tasa 300etik gorakoa bada. Aire libreko ekitaldietan eta kirol-instalazio irekietan, ostera, ez dute neurria ezarriko. Auzitegi Nagusiaren autoak dioenez, egoera epistemologikoaren okertzea nahikoa oinarri da Jaurlaritzak neurri murriztaile berriak ezartzeko. Une honetan bi kasutan eskatu ahal da ziurtagiri digi-



tala. Batetik, aisia eta dantza uztartzen dituzten establezimenduetan eta pub eta taberna berezietan ere, 22:00etatik aurrera. Eta bigarrenik, 50 lagun baino gehiago hartzeko baime-na duten jatetxeetan.

Eibar Rugbyko rifan Kariberako bidaia irabazi duenaren bila

>>> Orain dela hiru hilabete Eibar Rugbykoek Karibera joateko atera zuten zozketak abenduaren 2tik badu zenbaki irabazlea (6183) eta 6891 geratu da ordezkoko bezala. Zenbaki irabazlea zein zen argitaratu dute Eibar Rugbykoek, baina irabazlea ez denez oraindik agertu, rifak erosi zituztenei ondo begiratzeko eskatu dute.

Gogorarazi dutenez, irabazleak 2022ko urtarrilaren 1era arteko epea dauka klubarekin harremanetan jarri eta irabazitako saria jasotzeko (627 95 96 58 / secretaria@eibarugby.com). Bestela, egun horretarako 14:00etarako ez bada inor azaldu, ordezkoko zenbakiaren jabeak jasoko du bilagunentzat Karibera bidaiatzeko sari hori.



Hasi dira Ipuruako kiroldegiko teilatua eraberritzeko lanean

>>> Astelehenean hasi zituzten Ipuruako kiroldegiko teilatua eraberritzeko obrak. Kirol-instalazioan ura ez sartzea da lanen helburua eta, horretarako, bederatzi astez ibiliko dira lanean, 229.779 euroko aurrekontuarekin. Beraz, otsaila amaitu aurretik obrak amaituta egotea aurreikusten dute.

Iaz kiroldegiaren estalkie buruz egindako txosten baten bidez jakitera eman zuten, teilatutik ura sartzen zela zehaztu zuten. "Teilatu-hodiek, beren kokapenagatik, arazo handiak sortzen dituzte

eta zaildu egiten dute garbiketa-lana", dio Udalak. "Urteekin (kontuan hartu behar da egitura hau 1982an eraiki zela) eta haizearen eta oxidazioaren eraginez, arazoak sortu dira airea sartzen delako egiturari, eta horrek teilatuko elementuak jaustea eragin du, batez ere, kiroldegiaren mendebaldeko aldean", gehitu dute.

Bestalde, eguaztenaz geroztik Unbeko kirolguneko instalazioak erabili daitezke berri, aurreko asteko euriteek eragindako kalteengatik egun batzuk itxita egon eta gero.

Gazteei atzeritik itzultzea errazteko Hator! programa abian

>>> Debegesa garapen agentziak Hator! programa jarri du martxan atzerrian bizi diren eta prestakuntza zientifiko-teknikoa duten gazteei etxera itzultzen laguntzeko.

Lehenengo fasean, aholkularitza- eta laguntza-prozesu bat egiten da online, eta, ondoren, pertsona harremanetan jartzen da itzulera-ibilbidean orientatzeko enpresako, ikerketa-zentroko edo erakundeko zuzendari edo kudeatzaileekin. Programa hau esparru zientifiko eta teknologikoetan prestakuntza dutenei zuzenduta dago, nagusiki, ingeniariaritz,

matematika, telekomunikazioa, kimika, informatika eta fisika alorretan ikasketak dituztenei. Hala ere, beste diziplina batzuk ere baloratu egingo dira. Gainera, Debabarrean bizi direnak izango dute lehentasuna programan.

Proiektuan parte hartzeko, Debegesaren webgunean (www.debegesa.eus) dagoen formularioa bete behar da, eta bertatik ipiniko dira kontaktuan interesatuarekin. Programari buruzko xehetasunak Interneten, <https://www.debegesa.eus/eu/hiritarrak/hator> helbidean begiratu daiteke.



688 62 76 89
ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
943 20 09 18
Urkizu, 11 - solainuartea
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Grupo Azkora

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Emakumeok Mugimenduan egitasmoa aurkeztu dute

>>> Emakumeok Mugimenduan egitasmoa aurkeztzen duen Txita ibiltaria Gipuzkoako 20 udalerritan ibiliko da abenduan eta atzo Eibarren egon ziren horren berri ematen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Sailak, emakumea eta kirola programaren baitan, Emakumeok Mugimenduan ekimena jarri du abian. Egitasmoaren helburua emakumezkoen aktibotasuna bistaratzea eta garatzen laguntzea da.

Egitasmoaren baitan, hainbat ekintza antolatu dituzte Gipuzkoako emakumeen jarduerak fisikoa areagotzeko. Horietako bat da Emakumeok Mugimenduan Erronka Digital Soliarria: 40.000 kilometro, munduari bira emateko. Hala, erronkaren bidez lortutako kilometroekin, emakumeen ahalduntzea sustatzen duten 3 erakunde lagunduko dira.

Izen-ematea zabalik dago. Parte hartzeko, Kinendu aplikazioa deskargatu eta erronkan izena eman behar da.

CrossFit Eibar taldeak erronka solidarioa antolatu du biharko

>>> Bihar CrossFit Eibar taldekoak Untzagan egongo dira, 18:00etatik 21:00etara, herritar guztientzat zabalik egongo den erronka solidarioarekin. Parte hartzera animatzen direnek 30 segundoko sprinta egin beharko dute Rogue Echo Bike bizikleta estatikoan edo Concept 2 ergonometroan arraunean egin. Parte-hartzaile guztiei kamiseta bana oparituko diete eta, gainera, hainbat sari eskuratzeko aukera izango dute, parte hartzen duten guztien artean egingo den zozketan.

Ekimenaren bitartez Buruko Osasun Konfederazioari lagunduko diote eta, bide ba-



tez, Txonta kalean zabalduko duten gimnasio berria ezagutzera eman nahi dute. Izan ere, #UpliftingMinds kanpainarekin bat egin dute, kirola egitea buru osasunarentzat ona dela ikustarazteko asmoz.

Abenduaren 26ko manifestaziora joateko autobusa

>>> Gabonen testuinguruan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan mobilizazioak deitu ditu Sarek eta, besteak beste abenduaren 26an, 13:00ean, manifestazioa egingo da, Donostiako epaitegitik hasita. Eibartik autobusa egingo da. Ego-Gainetik 11:00etan, eta buelta 14:30ean izango da. Izena Buenos Aires eta Guridi tabernetan eman daiteke (24ean, 13:00ean itxiko da epea).



Eibarko ermiten dokumentala Interneten

>>> "Eibarko ermitak historiaren lekuko" bideoa sareratu du Ego Ibarrek Euskararen Egunean. Dokumentalak 41 minutuko iraupena du eta Eibarren dauden eta egon diren ermiten historia xumea azaltzen du, hainbat testigantza-aren bitartez.



Algaraklown ospitaleko pailazoen egutegia salgai dago ...eta kitto!-n

>>> Algaraklown ospitaleko pailazoen elkarte da, eta irribarrearen ahalmena eta emozioen lanketa sustatzen dituen osasun-laguntzako proiektu bat garatzen du, ospitaleratuta dauden pertsonen bizitza independenteagoa eta autonomoagoa izan dadin. Algaraklowni lagundu nahi izanez

gero, elkarteak 2022. urteko egutegiak argitaratu ditu eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskuratu daitezke (Urkizu pasealekua, 11 - solairuartera), 10 eurotan. Eibarren beste toki hauetan ere eros daitezke: Gozoetxe (Toribio Etxebarria), Zernahi (Calbeton) eta La Salle ikastetxean (Isasi).

<<< MIREIA UGARTEBURU • (SUMUM) >>>

“Boli Kostakoa esperientzia bikaina izan da”

SUMUM (Sólo Un Mundo Un Mestizaje) Huescan jaiotako GKE bat da, Boli Kostan izandako gerrate zibilaren ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko. Orain Mahandougou izeneko herrixka batean eskola bat eraikitzeko programarekin buru belarri dabilta. Mireia Ugarteburu eibartarra bertako kidea da sorreratik eta 10 egun eman berri ditu herri horretan. Bihar Arrate Kultur Elkartean, 19:00etan, horren inguruko SobrehuManos liburua aurkeztuko dute.



Zelan sartu zinen GKE horretan? Egon izan da motibo berezirik?

Maria Lalueza SUMUMen arduraduna 1993an beste GKE batekin egon zen Balkanetako gatazkan, errefuxiatu kanpo batean, Alfredo nere senarrarekin batera; hortik ezagutzen dut Maria. Eta berak eskaini zidan Boli Kostara joan eta bertan esku artean duten proiektu hau “in situ” ezagutzeko aukera.

Hamarkada eta erdi da GKE sortu zela. Zelako bilakaera izan du zuek egindako lanak?

Gaur egun proiektuak konplexuagoak dira. GKE sortu zenean komunak eraikitzen eta esko-

letarako altzariak egiten hasi ginen, batez ere ikasmahaiak. Orain, ezagunagoak garen eta bazkide gehiago daukagunez, proiektu gehiago ditugu esku artean: eskola-jantokiak eraikitzea, esate baterako. Mahandougouko hau eraikitzen dugun hirugarren eskola da. Aurten bi proiektu egin dira aldi berean: emakumeen alfabetatzea eta Mahandougouko eskola. Eta sentsibilizazio jardunaldi gehiago egiten ari gara hemen, lehen munduan, hala nola hitzaldiak, argazki-erakusketak, etab.

Noiztik noiz arte egon zarete han? Zelako esperientzia izan da 10 egunetako hori?

Azaroaren 28an bidaiatu genuen hiru arkitektoekin batera eta bertan izan gara abenduaren 7ra arte. Herrixka Boli Kostako iparraldean dago, Bafing eskualdean. Ia ia Ginean dago, frontera 3 kilometrorra dago. Herrixkan mila lagun inguru bizi dira, horietatik 400 umeak; oso herrixka gaztea da, beraz. Ura putzutik ateratzen dute eta herri osorako argi indarra generadore batek sortzen du. Gure bizimoduarekin zerikusirik ez duen bizimodua dute. Gutxirekin bizi dira, baina zorientsuak dira daukatenarekin, badakite apreziatzen. Azpimarratzekoa benetan jendearen alaitasuna eta “hospitalitatea”. Esperientzia zoragarria izan da: eskolako obra zuzenean ikusteko aukera izatetik aparte (herri osoa lanean ari da bertan), herrixka gertutik ezagutzeko, euren ohi-turak... Esperientzia ahaztezina.

Aurretik egonda zinen? Zenbat aldiz? Igarri duzu alderik?

Boli Kostan lehenengo aldia izan da, ezin dut ezerekin konparatu. Aurretik Hegoafrikan eta Egipton egonda nengoen, baina horrelako bidaia ezin da ezerekin konparatu. Maria zazpi urtetan Boli Kostan bizi izan da, eta lagun ezinhobeia izan da.

Zelakoak dira gerrate zibilaren ondorioak Boli Kostan?

Ekonomikoki hondamendia izan zen, giza galerak kontuan hartu gabe noski. Eskola asko suntsitu ziren, inbertsioak ere gelditu egin ziren baita. Irakasle funtzionarioek ihes egin zuten, maisurik gabe geratu ziren, boluntarioekin lan egin zuten. Osasun aldetik gauza bera gertatu zen, batez ere iparraldean, gu lanean ari garen tokian. Boli Kosta Afrika mailako motor ekonomikoa zen, eta orain pixkanaka suspertzen hasia da berriro.

Aurkeztu behar duzuen libururak zer kontaktzen du? GKE-ren esperientzia eta proiektuak?

Rafa Martos argazkilaria da eta Sara Ezquerri andereñoa. Ni bezala, Mahandougoua joan ziren irailan, eta laguntzeko zerbait egin behar zutela pentsatu zuten. Liburua orain dela bi aste argitaratu zen eta gonbidapena egin diegu Eibarrera etortzeko, Mariarekin batera, eta zapatuan Arrate Kultur Elkartean liburuari eta bertako esperientziari buruzko “tertuliatxo” egitea da gure ideia. Liburuaren salmentarekin ateratako dirua zuzenean joango da proiektu honetara.





Aurten ere Olentzero agurtzeko aukera egongo da, udaletxeko patioan, baina horretarako aurretik hitzordua hartu beharko da derrigorrez, datorren astelehenean Portaleko 1. pisuan.

Osasun egoeraren neurriko Gabonak, aurten ere

Atzo goizean jakinarazi zuten, pandemiak baldintzatutako egitaraua prestatu du Udalak Gabonetarako. Batetik, bertan behera laga dituzte Olentzeroren kantu-kalejira eta Hiru Erregeen kabalgata. Eta, bestetik, Astelena frontoiko Gabonetako haur-parkerik ez egitea erabaki dute azkenean, osasun egoeraren eboluzioa nolakoa den ikusita. Hala ere, haurrek Gabonak ospatzeko moduko jarduerak egingo dira, iazkoaren bidetik, eta egoerak eskatzen dituen neurriak zainduta.

Jon Iraola alkateak, Ander Curiel Gazterriako zinegotziak eta Asier López de Viñaspre sail horretako teknikariak aurkeztu zuten Gabonetarako programazioa atzo egingo diren prentsaurrekoan. Bertan esandakoari jarraituta, “Udalak haurrei zuzendutako Gabonetako jarduera batzuk diseinatu ditu, eduki gutxiko programazio baten bidez, egoera epidemiologikoa eta pandemiari aurre egiteko beharrezko murrizketak direla-eta. Hala, ohiko jarduera batzuk ez dira egingo eta beste batzuk formatu murriztuan egingo dira”.

Batetik, Olentzeroren kalejira eta Hiru Erregeen kabalgata bertan behera geratu dira, “arriskua dagoelako eta Udalak ezin dituelako kontrolatu sor daitezkeen jende-pilaketak”. Horren ordez, hilaren 24an, 11:00etatik 14:00etara, ongietorria egingo zaio Olentzerori udaletxeko patioan, eta urtarrilaren 5ean, 17:00etatik 20:00etara, gauza bera egingo

da Hiru Erregeekin. Batean zein bestean parte hartzeko, familiek derrigorrez eskatu beharko dute hitzordua aurretik. Batearako zein besterako hitzordua eskatzeko Portalerara joan beharko da, astelehenean (abenduak 20), 17:00etatik 19:00etara. Familia bakoitzeko gehienez sei gonbidapen emango dituzte. Bestalde, Olentzerori eta Hiru Erregeei gutuna bidaltzeko postontziak ipini dituzte udaletxean zein Portalean.

2021eko Negulekuak

Bestetik, Gabonetako haurparkea ere bertan behera lagatzea erabaki dute azken momentuan: “Gabonetako parkean sortzen diren ume-pilaketek izan ditzaketen ondorio negatiboak sakon aztertu ondoren, azken orduan erabaki da jarduera hori ez egitea, eta Ipuruako kiroldegian egiten den dantza-ikuskizuna ere ez da egingo. Hori dela eta, erabaki da abenduaren 27tik aurrera, ‘2021eko Negulekuak’ egitea.



Urteroko moduan, Gabonetarako kontzertu bereziak prestatu dituzte herriko talde ezberdinek.

Espazio horretan haurrentzako jarduera ludikoak, jolasak eta tailerrak egingo dira, adin-tarteen arabera, Eibarko hiru toki desberdinetan, eta gehienez hamar laguneko taldetan. Toki horiek etengabe desinfektatzen joango dira”.

Errebalgo erabilera anitzeko espazioaren lehen solairuan, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzako jarduerak egingo dira (30 plaza). San Andres ikastetxe publikoko gimnasioak ‘Negulekuak’ hartuko ditu Lehen Hezkuntzako lehen eta hirugarren mailen arteko umeentzat (40 plaza). Eta Astelena frontoian Lehen Hezkuntzako laugarren eta seigarren mailako umeentzako jarduerak egingo dira (50 plaza).

“Negulekuak” abenduaren 27, 29, 29, 30 eta 31n eta urtarrilaren 3an eta 4an egingo dira, eta, azken egun horretatik aurrera eta “egoera sozio-sanitarioaren bilakaeraren arabera, agian, baita beste egun batzuetan ere bai”. Aurretiaz-

Olentzero eta Hiru Erregeei harrera egiteko aurretik txanda hartzea nahitaezkoa da. Astelehenean eskatu behar da, Portalean.

Negulekuak ekimenerako hitzorduak Internet bidez hartu beharko dira, Udalaren webgunean

ko hitzordua honako webgunearen bidez eskatu ahal da: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>.

Kontzertu bereziak

Musikak garrantzi berezia izan ohi du Gabonetan eta, aurtenera, kontzertu eta emanaldi bereziak egingo dira. Berritasunik handiena Ustekabe Fanfarreak eskutik dator: atzo bezala, gaur ere Coliseoan arituko dira,

20:00etatik aurrera, “Eibarko Kantak” diskoa zuzenean aurkeztzen. Diskoaren lagungarri eta osagarri, kantu bakoitzari buruzko informazioa eta alderdi musikala jasotzen duen liburuskara ere egin da, “ezinbestekoa Ustekabek egin duen harmonizazio-lan sekulakoaren jatorria ezagutzeko”. Gaur Coliseoan erosteko aukera egongo da eta bihurtik aurrera honako tokietan: Ametsa, Zai-zoi, Guridi eta

Amesti tabernetan, Corral arropa-dendan, Helmet House-n eta Arriola kioskoan (Untzagan eta Urkizun). 10 euro balio du.

Sostoa Abesbatzak bihar eskainiko du Gabonetako kontzertua, Eibarko Koro Gaztearen eta Juan Bautista Gisasola eskolako koruaren laguntzarekin. 20:15ean hasiko da, San Andres parrokiari.

Eta domekan, 11:00etan hasiko da Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Legarretik hasita, Ego-Gain eta Untzagan ibiliko dira. Untzagako jubilatuen abesbatzak, berriz, Karmelitetan abestuko du, 12:00etan. Eta 12:30ean hasiko da Eibarko Musika Bandaren Gabonetako kontzertua, Coliseoan, Andoni Vazquezek zuzenduta.

Eta musikaz gain, dantza ere egongo da Birakaren eskutik. Eguaztenean, 19:00etan aurkeztuko dute “Horra Horra Biraka” Gabonetako dantza ikuskizuna, Errebal Plazia eraikinean.



Perez Jauregi familiari oroigarria eta lore-sorta bat eman zioten Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak eta Udalak antolatutako ekitaldian. SILBIA.

Roberto Perez Jauregi gogoan, hil zutela 51 urte bete direnean

Orain dela 51 urte, 1970eko abenduaren 8an, polizia batek tiroz hil zuen Roberto Perez Jauregi gogoratzeko ekitaldi instituzionala egin zen abenduaren 9an, Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udalak antolatuta. Maite Arroita Jauregik zabaldu zuen omenaldia, Lurdes Iriondoren kantu batekin eta, jarraian, Jon Iraola alkateak eta Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak egin zuten berba. Bereziki hunkigarriak izan ziren Robertoren anaia, Jorge Perez Jauregiren berbak.

Omenaldia antolatu zutenei eskerrak eman eta gero, Burgosko prozesuaren kontrako manifestazio baketsuan hil zuten gaztea Agirre y Aranzabal tailerreko elektrizista edo PCE(i)-ko kidea izateaz haratago anaia zuela gogoratuz hasi zen berbetan: "Familian beti izan dugu argi tiro egin zuena zibilez jantzitako polizia zela, eta oso gertutik botatu zuela. Edozein manifestari izan zitekeen. Ez zuten hil PCE (i) Espainiako Alderdi Komunistako kidea zelako, eta ez zen ETako militantea, duela ur-

tebete Udaleko osoko bilkura batean alderdi sozialistako bozeramaileak esan zuen bezala. Nire anaia ni baino ia zazpi urte nagusiagoa zen. Hil zutenean 22 urte zituen betetzear. Beti esan didate gazte serioa, arduratsua, argia, kirolaria eta oso konprometitua zela erregimen frankistaren aurkako eta langileen eskubideen aldeko borroketan. Baina niretzat, nire anaia nagusia eta bakarra zen. Etxeko korridorean nirekin futboleko jokatzun zuena, denetik babesten ninduen, eta sartzen nintzen istilu guztietatik ateratzen ninduen.

Abenduaren 9an, anaia lurperatzeaz gain, familia ere lurperatu genuen. Egun horretatik aurrera, nire gurasoak, Casimiro eta Alicia, eta ni, ez ginen inoiz izango izan ginena".

Anaiaren heriotzaren ostean herritarrengandik jasotako babesari esker aurrera egitea lortu zutela gaineratu zuen. Trantsizioarekin oso kritikoa azaldu zen: "Erakunde publikoek, alderdi politikoek, ez zuten ezer egin kalean askatasunaren alde bizitza utzi zuten biktimei justizia egiteko. Trantsizio eredu-

garriak hori guztia estali, isilean gorde zuen eta, ondoren, errekonozimendua, justizia eta erreparazioa emango zuten legeak sustatzeko ausardiarik izango zuen gobernurik ez da egon. 1977ko urriaren 15ean Amnistiaren Legea onartu zuten eta preso politiko guztiak kartzeletatik atera ziren. Ez genuen uste lege horrekin, etorkizunean, jendea erail, torturatu zuten poliziak ezin izango zirenik epaitu".

Anaia biktimea gisa aitortzeko bidea luzea eta nekeza izan dela erekarri zuen gogora: "2008ko



Burgosko prozesuaren kontrako manifestazioan parte hartzen zegoen 21 urteko eibartarra, kaleko jantziak zeramatzan polizia batek bete-bete eman eta larriki zauritu zuenean. Lau egun geroago hil zen Donostian.

BIDEOA IKUSGAI



abenduaren 21ean Eibarko Udalak ekitaldi bat antolatu zuen Eibarren hil zituzten edo Eibarkoak ziren terrorismoaren biktimak oroitzeko eta aitortzeko, baina nire anaiari ez zioten aitortzarik egin, eta ez ziren ezta familiarekin harremanetan jarri ere. Suminduraz eta minez beteriko egunak izan ziren, horren gertukoa den gure Udala bezalako norbaitek, gehiengo sozialistarekin, baztertu egin gintuelako, terrorismoaren biktima gisa jasota ez zegoela argudiatuz. Roberto ez da soilik terrorismoaren biktima, askoz ere larriagoa den estatu-terrorismoaren biktima da”.

Anaiari egindako aintzatespen publikoak beti herritarren eskutik etorri direla nabarmendu zuen: “40. urteurrenean, eibartar talde batek, Ahaztuak 1936-1977 elkartearekin batera, omenaldi publikoa antolatu zion Robertori. Karmeldarren

plazan, tiro egin zioten tokitik gertu itxi zen ekitaldia, plaka bat ipinita, eta nire aita Casimirok parte hartzeko aukera izan zuen. Honetan ere Udalak ez zuen ordezkartzarik izan. Garai hartan jakin genuen tiroaren ustezko egilea José Ramón Sánchez Pizarro zela, eta Valladoliden mailaz igo eta komisario izendatu zutela”.

Eusko Jaurlaritzak 2012an aitortu zuen Roberto “polizia-

ren gehiegikeriaren biktima” gisa: “Terrorismoaren biktima terminoa ez zait gustatzen, erabiltzen den guztietan ETaren terrorismoaz hitz egiteko izaten delako. Nire ustez, anaia estatu-terrorismoaren biktima da. Sufirimendua berbera da. Nolanahi ere, giza eskubideen urraketen biktimak gara, eta horrekin identifikatzen naiz ondoen. Lehen, bigarren edo hirugarren mailako biktimarik egon ez dadin”.

Agurtu aurretik, orain dela urtebete Udalbatzak gehiengoz onartu zuen Eibarko Memoria Taldearen eskaera gogorarazi zuen: “Karmeldarren ondoko plazan monolito bat jartzea eta Eibarren izan diren biktima guztien Oroimenaren Plaza deitzea. Udalak 2008an aitortu zituen eta oraindik aitortu ez dituen beste hiruren (Alberto Soliño, Jesus Mari Zubikarai eta Roberto) oroimenez”. ■

“Giza eskubideen urraketen biktima guztiak ordezkatuta dauden tokiak behar ditugu”

Orain dela egun batzuk, Euskal Herriko Sahararen aldeko zenbait elkartek eta udan Saharako umeak jasotzen dituzten zenbait familiak milaka kilometro egin zituzten Tinduferraino (Aljeria), saharar errefuxiatuen kanpamenduetaraino. “Gure asmo nagusia udan Euskal Herrira etortzen diren 300 umeei maleta eramatea izan da”, esan digu Edurne Uzkudun Eibar-Sahara elkarteko kideak.

COVID-19aren pandemiaren geroztik Saharako umeak ezin izan dira Euskal Herrira etorri eta eurentzat garrantzitsua izaten da hemen jasotzen dituzten sendagaiak eta bestelako baliabideak eskura izatea. “Harrera-familia bakoitzak bere maleta osatu zuen, baina Eibar-Saharak 30 maleta inguru gehiago eraman zituen. Izan ere, udan etortzen diren ume batzuk aterpetxeetan geratzen dira eta, gure elkarreak hainbeste material bilduta zenez, ume horientzako maletak ere egin genituen”, azaldu digu Uzkudunek. Baina zer sartzen dute maleta horietan? “Erropa, txokolatea, sendagaiak, jostailuak, janaria... Gero, ume bakoitzak behar jakin batzuk izan ditzake”, argitu digu. Gainera, maletaz gain, dirua ere eraman zuten sobreetan.

42 ibilgailu eta 50 lagun

Lehen asmoa umeei maletak eramatea izan arren, Euskal Herriko elkarreak ibilgailu bila hasi ziren eta azkeneko bi urteetan 42 ibilgailu bildu zituzten. “Anbulantziak, minibusak, kamioiak, autoak...”, aipatu digu Uzkudunek. Orduan, ibilgailuak zituztela aprobetxatuta, umeen maletaz gain gauza gehiago eramateko aprobetxatu dute bidaia.

Euskal Herriatik abiatu zen konboia 42 ibilgailu eta 50 lagunek osatzen zuten, eta bakarra geratu zen bidean, matxuraturata. Bidaia Gasteizen hasi zuten eta Almeriara jo zuten lehenik. Gero, ferrya hartu eta Aljeriara iritsi ziren. Afrikan lurra hartu ondoren, beste 1.500

Saharar errefuxiatuen kanpamenduan

Eibar-Sahara elkarteko Edurne Uzkudun saharar errefuxiatuen kanpamenduetan egon zen joan den astean. Pandemiaren ondorioz bere familia sahararra bi urtetan ikusi barik egon ondoren, emozio handiko egunak bizi izan ditu Tindufen (Aljeria) eta oraindik ere hunkitu egiten da bertan bitzitakoa gogoratzen duenean. Euskal Herriak lotura berezia du Sahararekin eta, oztopoak oztopo, elkarrengandik gertu jarraitzen dugu.



kilometro egin behar izan zituzten basamortuan zehar Tinduferra heltzeko. Bost eguneko bidaia izan zen, ibilgailu zaharrek markatzen zuten erritmorra, baina azkenean lortu zuten helmugara iristea. “Gauzez iritsi ginen kanpamenduetara, oso nekatuta, eta guztiok elkarrekin lo egin ondoren, hurrengo egunean Saharako nire familiarengana joan nintzen. De-

maseko emozioa sentitu nuen ikusi nituenean, negar eta negar egin nuen”, gogoratzen du Uzkudunek.

Eibartarrak oso harreman estua du Saharako familiarekin eta ez da erraza izan azken bi urte eta erdian elkar ikusi barik egotea. “Orain 28 urte, Debako osabak Saharako ume bat ekarri zuen eta, harrezkerio, izebak hiru ume ekarri ditu,

guregana ere etorri izan dira beste batzuk... Eurak guztiak familia berekoak dira eta guztiak familiakoak dira, beste edozein lehengusu edo lehengusina bezala”, diosku Uzkudunek. Eibartarra kanpamendura iritsi zenean, ostera, ez zeuden guztiak. “Eibarrera etortzen diren nire bi umeak falta ziren, eskolan zeudelako, Tindufen. Hurrengo egunean etorri ziren eta autotik jaitsi zirenean niri begira gelditu ziren, geldirik. ‘Nola izango da posible!’”, esan nien txantxetan, eta korrika etorri ziren besarkada bat ematera”, gogoratzen du. “Izan ere, han ez dute besarkatzeko ohiturarik eta hango familiarean aurrean besarkadak ematea arraroa egiten zitzaion. Hori bai, hemen daudenean oso mainatsuak dira”, diosku barrez.

Bost eguneko bidaiaren ondoren, Euskal Herriatik joandako espedizioa bi egunez geratu zen kanpamenduetan. Bertan, aspaldi ikusi barik zituzten familia maiteak ikusteaz gain, hemendik eramandako guztia banatu eta Ilargi Erdi Gorriari ibilgailuak eman zizkieten. Egonaldi laburra, baina oso bizia eta hunkigarria izan zen, bueltarako beste odisea bat hasi aurretik. “Lehenik, Aljerrera joan ginen eta egun bat pasa genuen han. Ondoren, Bartzelonara hegazkina hartu genuen eta handik autobusean etorri ginen Euskal Herrira”, diosku Uzkudunek. “Hau zen aukera bakarra umeak ikusteko eta maletak eramateko. Beraz, merezi izan du”, bere iritziz.

Kanpamenduetan bizitakoa buruan oraindik oso fresko edukita, udan umeak berriz ikusteko gogo handia du Uzkudunek, eta Euskal Herriko eta Espainiako elkarreak lanean hasi dira horrela izan dadin. “Ikusiko dugu pandemiak lagatzen digun ala ez, baina zenbait ziurra jakin arte, prestaketa lanak egiten hasiko gara”, diosku gogotsu. Horrela, Oporrak Bakean programaren bitartez udan Saharako umeak ekartzen saiatuko dira eta, familiek egitasmoan izena eman nahi izanez



Sahararrek hainbeste behar duten laguntza eraman zuten kanpamenduetara Euskal Herriko elkarteek.



gero, oporrakbakean.eus web orrian edota Eibar-Sahara elkartearen bitartez informazio gehiago jaso dezakete.

Pandemia eta gerra

Pandemia aurretik, saharar errefuxiatuen egoera ez zen baterre erraza. Demaseko beharrak zituzten, baina gutxienez nolabaiteko laguntza iristen zitzaien. "Orain, egoerak okerrera egin duela ikusten da. Lehen, adibidez, nire familiak entxufeak zituen telefono mugikorrek kargatzeko, baina orain ez, batera batekin moldatzen dira. Lehen ogirik ez zen falta, baina orain irina ere ez zaie iristen", azaldu digu Uzkudunek. "Eskerrak nire familiakoak Tindufen bizi diren urte osoan, umeez han ikasten dutelako. Euren arreba nagusia Tinduferara ezkondu zen eta,

ondorioz, etxea dute bertan", zehazten du.

Janari falta handia dago kanpamenduetan, besteak beste, baina sahararren kezka haratago doa. Iaz, Frente Polisarioak hautsitzat jo zuen Marokorekin 1991n sinatu zuen su-etena, eta, hortaz, gerra egoera ezartzea erabaki zuen eta tentsio militarra hazi egin da inguruan. "Marokok eraikitako hesi guztian zehar tentsioa bizi da. Nire familiaren alboko etxeko seme bat gerrara joan da eta berataz oso harro daude, bere herriaren alde borrokatzen duelako", azaldu digu eibartarrak. "Ikusten dute independentzia lortzeko erreferendumik ez dela egingo eta jende gaztea egoeraz nazkatuta dago. Beraz, aukera bakarra borroka dela ikusten dute", bere iritziz.

Jose Antonio Larrea Alberdi

2021-12-10

"Gure bihotzian betirako eramango zaittugu"

ETXEKUAK

ESKERRIK ASKO egun hauetan gurekin egon zarien danori.





Eduardo Apodakak Joseba Gabilondorekin eta Mitxelko Urangarekin egingo du ikerketa-lana. UNIBERTSITATEA.NET

<<< EDUARDO APODAKA • Juan San Martin Bekaren irabazlea >>>

“Filosofian egiten ari dena jaso eta modu ulergarrian zabaldu nahi dugu, euskaraz”

“Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia” izenburuko proiektuari esleitu diote XV. Juan San Martin Beka. Aurten ikertuko den arloa filosofia izango da eta Eduardo Apodaka, Joseba Gabilondo eta Mitxelko Urangak osatzen duten hirukoteak globalizazio ostearen hiru alderdi esanguratsuenak jorratu, landu eta hausnartu nahi ditu, filosofiaren arlo ezberdinetatik abiatuta.

Zein da zuen proiektuaren proposamena?

Izenburuan ikusi daitekeen bezala, marko baten barruan hiru gai landuko ditugu. Globalizazioaren ondorena aipatzen dugu, globalizazioa amaituta egongo balitz bezala. Oraindik ez da amaitu, baina aldaketak begi bistakoak dira. Orain asko hitz egiten ari da klima-aldaketarekin eta industriaren eta

gizartearen garapenarekin batera etorriko diren kolapsoei buruz (erregai fosilen bukaera, adibidez). Horietan guztietan ideia berbera ikusten da: apokalipsia. Izenburuan berba hori jarri dugu, filosofo askok erabiltzen dutelako. Apokalipsia ez da nahita nahiez munduaren bukaera, baina bai oraingo munduaren bukaeraz pentsatzeko marko bat.

Marko horren barruan nolako hausnarketa egingo duzue?

Guretzat nagusi diren hiru gai proposatu ditugu. Batetik, apokalipsiari dagokionez, denbora, historia... aztertuko ditugu. Orain arte aurrera egiteaz egin da berba beti: garatzeaz, hazteaz, eraikitzeaz, gehitzeaz... Orain, ostera, kontrakoaz hitz egiten hasi gara: desazkundera, garapena gelditu behar dela,

hiri geldoak behar ditugula, gutxiago kontsumitu behar dugula... Gure oraina eta etorkizuna begiratzeko beste modu bat da, eta premiazko kontuak (adibidez, klima aldaketa) gertatzen direlako zabalitzen ari da. Ez da alarmismo kontu bat, arrazoi serioak daude horretaz berba egiteko. Gai honetan historiaren gaia landuko dugu: zer dugun aurrean, gaur egun

historia nola irudikatzen dugun eta filosofian zer esaten ari den horren inguruan. Bigarren gaia subjektuarena da. Subjektu moduan zer egin dezakegu? Zerbait egin ahal dugu? Badugu erantzukizunik? Badugu libre eta moralki jokatzetik? Edo, besterik gabe, sistema geldiezina delako hau guztia gainera datorkigu eta ezin dugu ezer egin? Subjektuaren ideia erruduna topatzeko erabiltzen da, baina filosofian egon den kezka izan da aldaketarako subjektua zein den, nola sortzen den eta abar jakitea. Erronka unibertsal baten aurrean bagaude, subjektuaren gaineko gogoetari buelta eman behar zaio. Hirugarren gaia popularragoa da: egia-ostea (post egia edo fake news). Filosofiatik hartuta, jakintza da gai honetan lantzen dena. Hau da, nola sortu ahal dugun egia eta nola eraiki edo berreskuratzea ahal dugun krisian dagoen egia, gaur egun egia benetan zatikatzen ari denean eta bakoitza bere egiari so bizi denean, eta ondokoaren egiaren aurrean harresiak eraikitzen direnean edo, besterik gabe, harriak botatzen direnean.

Zein da zuen helburua proiektu honekin?

Munduko bazter honetatik filosofian egiten ari dena jaso eta, ahal dela, modu ulergarriari zabaltzea, euskaraz. Gainera, ekarpen propioak egin nahi ditugu.

Euskaraz egiteak nolako baliola ematen dio lanari?

Azken urteotan saioen edo entseguen arloan asko argitaratu da euskaraz, gauza onak gainera, eta itzulpenak ere egin dira, baina hala ere beti gabiltza oso hankamotz. Beraz, edonork irakur ditzakeen filosofia liburuak argitaratzea da gure asmoa. Guztira hiru liburu argitaratuko ditugu, gai bakoitzarako liburu bana. Horrela, filosofiari buruz euskaraz irakurri nahi duenari aukera eman nahi diogu. Gutako bakoitzak bere lana egingo du, besteekin el-

“Azken urteotan saioen edo entseguen arloan asko argitaratu da euskaraz, gauza onak gainera, eta itzulpenak ere egin dira, baina hala ere beti gabiltza oso hankamotz”



“Euskal Herria ez aipatzen saiatuko naiz, nahita, baina euskaraz eta Euskal Herritik egin nahi dut, nik neuk daukadan begiradatik”

karturik. Hau da, hiru liburu izango dira, baina hiruren artean marko bera egongo da eta hiruren artean solasaldia eta keinuak egongo dira. Beraz, liburu bakoitza bakarka irakurri ahal izango da edo hirurak bere osotasunean. Nire kasuan Euskal Herria ez aipatzen saiatuko naiz, nahita, baina euskaraz eta Euskal Herritik egin nahi dut, nik neuk daukadan begiradatik. Neurri batean irakurleak ikus dezala nondik hitz egiten ari naizen, baina ez geure zillborraz hitz egiteko. Mitxelko Urangak, bere aldetik, egia-ostearen gaia jorratuko du eta badakit hezkuntzaren aldetik joko duela neurri handi batean. Joseba Gabilondoren kasua bereziagoa da AEBtan bizi delako aspaldi eta ondo ezagutzen duelako hango giro intelektuala, politika, filosofia eta literatura. Alde horretatik ekarpen bereziago bat espero

dut. Beraz, ikusi daiteke tonua ezberdina izango dela.

Zuk zein gai landuko duzu zehazki?

Esan bezala, Mitxelkok egia-ostearen gaia landuko du, Josebak apokalipsiaren ideia (denbora eta historia nola erabili diren pentsamendu politikoan eta filosofian, besteak beste) eta nik subjektuarena. Nire asmoa da filosofia modernoan subjektua nola landu den aztertzea, baina batez ere gaur egun aldaketaren subjektua nola pentsatu ahal den ikustea. Askatasuna, emantzipazioa, justizia... berba asko hartu ditu aldaketak, baina begi bistan dago mundua aldatu behar dugula. Beste mundu bat posible zela esaten zenean, zera esan beharko litzateke: “Bai, baina nola?”. Baina ez bakarrik mundua nola aldatu jakiteko, baita gure ingurua ere.

Bakoitzak bere aldetik arlo bat ikertuko du eta, era berean, solasaldia sortuko da zuen artean. Nolako lan-prozesua jarraituko duzue hori lortzeko?

Neurri batean, gure artean dugun ia etengabeko solasaldia formalizatu nahi izan dugulako aurkeztu dugu proiektua. Gutxitan ikusten dugu elkar, baina ia egunero gaude kontaktuan eta azken urteotan gure lanak partekatzen, irakurtzeko gaien zerrendak osatzen eta iritzi trukean ibili gara. Kezka edo arrangura berdinak genituelako aurkeztu genuen proiektu hau: batetik, euskaraz egiten zen filosofiari buruzko kezka; eta bestetik, gaiari buruz hausnartzeko gogoia. Horrela, metodologiari begira, gure hartu-emana formalizatuko dugu, idatzi ahala testuak elkarri pasako dizkiongu, iritziak trukatuko ditugu eta, neurri batean, besteen iritziak emendatuko ditugu norberaren lanetan.

Beraz, esan daiteke dagoeneko martxan zabilatzatela.

Bai, proiektu hau orain arte egin eta eraman ditugun gogoeta-ildo batzuen konbergentzia da. Aurretiaz gai hauen inguruan gauzak egin ditugu, baina proiektu hau prestatzeko lanean jarri behar izan gara. Adibidez, liburu bakoitzaren gidoia zein izango den aurkeztu behar izan dugu eta horretarako liburuaren hezurdura zein izan beharko den prestatu behar izan dugu. Lana aurreratuta dagoela esan dezakegu, baina hori bai, gero idatzi egin behar da eta kasu hauetan zailena beti izaten da idaztea.

Noiz ikusiko dugu zuen lanetaren emaitza?

18 hilabeteko epea dugu, baina urtebetean amaitzea da asmoa. Hau da, 2022. urte osoan lanean ibiliko gara eta urte amaierarako lana amaituta edo amaitzearen egongo da. Horrela, 2023. urteko lehenengo zatian liburuak argitaratzea da gure nahia.



Felix Morquecho
FELIX MORQUECHO

Komaren ostean... farra-txartela

Praktikak egiteko denbora izan dugu jada. Legeak, gomendioak... Maila eta zentzu desberdinetako betebeharrak barneratu ditugu azken hilabete luze-luze hauetan. Neurri baten aurrean hainbat iritzi entzun ditugu: ados daudenak, azkenean amen esango duten kontrakoenak, paso egiten dutenenak... Baina argi-argi geratu dena hauxe da: komaren atzetik datorrena existituko ez balitz bezala hartu dugula. Ea, adibide praktikoa. Musukoak aire zabalean derrigorrezkoa izateari utzi zionean komaren atzetik "distantziak zaintzea ezinezkoa denean izan ezik" jartzen zuten. Baina badakigu komaren ostean datorrena askorentzat ez dela existitzen.

Beste kasu bat dugu leku itxietan musukoa erabiltzeko beharrek. Gutxi batzuk ulertu zuten jan eta edateko bakarrik kendu behar zela. Gehiengoak taberna barruan egonda libre sentitzen dira kentzeko. Eta irudi hori beste maila batera pasa da "Covid pasaporte" delakoarekin. Txertoen alde nago, zientziaren alde beti, baina txertaketa-agiria eskatzea bere naturaren kontrako

"Txertatuta dagoena bere agiria erakutsi eta hortik aurrera seguru, bermatu eta santutua ere sentituko da"

efektoa lortzen ari da. Txertatuta dagoena bere agiria erakutsi eta hortik aurrera seguru, bermatu eta santutua ere sentituko da, "farra-txartela" erakutsi eta hortik aurrera osasun-neurri guztiak popatik hartzera joan daitezkeelakoan.

Honetaz ni baino askoz gehiago dakien Felix Zubia izenkideak aipatzen zuten orain dela gutxi, ezin dela txertatu eta txertatu gabeen artean bereizketarik egin. Denok kutsa gaitzeko eta kutsa ditzakegu ingurukoak. Beraz, irakur dezagun komaren ostean datorrena. Txertaketa-agiria eduki edo ez, neurriak hartu behar ditugu gutako bakoitzak, eta gobernuari harriak botatzearena, arrazoi gehiagorekin egin dezakegu behin gure eginbeharrak bete eta gero.



Jesus Gutierrez
JESUS GUTIERREZ

Oraingo jaiotze-tasa, 1941ekoaren pare

2020an Euskadin 14.721 ume jaio ziren, aurreko urtean baino 697 gutxiago; horren arabera, badirudi pandemiaren eragina ez dela oso esanguratsua izan momentuz, nahiz eta hasieran (2020ko martxoan) neurri ezin zorrotzagoak hartu ziren. Hala ere, argi dago bizitzen dihardugun sasoi luze eta neketsu honen bere islada izango duela jaiotze-tasa jaitsiera handiago batean, pandemiaren aurretik ematen zena baino markatua izango dena.

Gainera, 2020ko jaiotze-kopurua 1941etik erregistratu den txikiena izan da; orduko gerra ondorengoko ume gogorrek ondo azaltzen dute sasoi hartako urte horretan hain jende gutxi jaiotzea. Gertuagoko urteak aipatzearen, nahiz eta hainbeste entzuten den baby boom-etik urruti egon, 2020an 2008an baino 6.000 ume gutxiago jaio ziren.

Badira beste datu batzuk nabarmentzekoak, tartean ama izaten diren emakumezko euskaldunen adina. Ama horien %35,2k 30etik 34ra urte ditu, 35 urtetik 39rako tartean daudenak jaiotzeen %32,8 diren bitartean. 25etik 29 urtera artekoen taldearen portzentaia %13,8 da, eta 40 urtetik gorako amen batzbestekoak (%11,2) 25 urtetik beherakoenena (%7) gainditzen du; azken datu hori oso adierazgarria da.

Baby boom sasoa atzean lagata, 1975. eta 1999. ur-

teen artean bizitutakoa hainbat aldaketa sozialek markatu zuten, tartean emakume gehienak enplegura jauzi egin zutela eta, horrekin batera, jaiotze-kontrolerako metodo berri eta hobek aurkitu zirela. Baina, behin mendez aldatuta, baby boom sasoi berri bati ekin zitzaion, hazkunde ekonomikoak lagunduta, 2008an mundu osoan eman zen krisi ekonomikoak etengo zuena. Ordutik, eta gaur egun arte, jaiotze-tasa jaisten joan da urtero. 2014an bai ekonomia eta baita enplegua ere hobetzen joan arren, jaiotze kopuruak jaisten jarraitu du. Horretarako badago esplikaziorik: belaunaldi berriak gero eta motzagoak dira eta gero eta gutxiago dira sasoi emankorrean (25etik 40 urtera) daudenen kopurua.

Aurreko datu eta kopuruekin argi dago: gero eta seme-alaba gutxiago ditugu, eta gero eta beranduago. Horregatik, hobe dugu etorkizuna beste modu batean planifikatzen hastea, hainbat hamarkadatan Euskadin ezagutu dugun errealtatea eta gaur egungo oso ezberdinak direlako.

"2014an bai ekonomia eta baita enplegua ere hobetzen joan arren, jaiotze kopuruak jaisten jarraitu du"



Gabonetako
erosketa gida

#EibarrenBadakagu

#EibarrenBadakagu



Urkizu, 3
943 54 36 97



TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



el vestidor

Errebal, 14
607 92 68 86

Zorionak!



baglietto

Dekorazioa

Etzerako osagarriak

Pinturak

Errebal, 21
bagliettoeibar.com
943 20 19 22



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentro naturalak eta lehorrak
- Etzerako zerbitzua



GRATZINA


Zorionak!

Zuloagatarren, 1
943 82 15 77



Gabon hauetan oparitu

DENDA - OSASUNA - AISIALDIA



moments
with
a story
behind

helmet house

CONCEPT STORE

📍 Blas Etxebarria Kalea 1,
Eibar (Coliseo alboan)

☎ 645 546 584
T. 943 849 310

@helmethousestore
hello@helmethouse.es

#EibarrenBadakagu

Twins

zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

www.twinseibar.com
twins_eibar twinseibar



klaus

Estaziño, 3
648 035 528

Denda
Dekorazioa
Erreformak
Proiektuak



klauseibar

umea



Errebal, 16 943 20 31 64

Jauregui

San Agustin, 4
943 20 16 47

Menajea - Beira - Opariak



BENICOBA
etxeko tresnak

Zorionak eta urte berri on!



Juan Gisasola, 12-14
943 20 39 02

CAPI Bidebarrieta, 5
943 201 547
www.capiestetica.es

BEGI Ingurune tratamendua

Gabon hauetan oparitu

DER TASA NA

BONO

Tratamiento Facial + Masaje Maderoterapia

BETILE LUZAPENAK

"make up efecto piel"

LIFTING

IRRAPEN LUZEKO TRATAMENDUA

Tonoa batenazten dit, azala fibrota eta argituz



IKUSTI
J. Etxeberria, 6
656 73 21 54

- Ume eta gazte moda
- Otik 16 urtera arte



XARE
Zuloagatarren, 1
943 53 67 64
@ xareibar
www.xareibar.com



**GU
BY**
zorionak!



Zuloagatarren, 9
943 20 12 40
Birjiñape, 1
943 20 28 33

tantaka
kalor eta gai ekologikoak
higiene pertsonala eta euskal kosmetika

Juan Gisola, 6
f @ tantaka.4eco

Opari bereziak
pertsone
bereizentzat

GABON ZORIONTSUAK

URTE BERRI ON



Ditare
Urkizu, 7
943 12 73 21

**HILEKOA, BAGINA-
FLUXUA eta TXIZA-
GALERA ARINAK
XURGATZEKO
KULEROAK**

- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Pijamak eta batak...
- Berezitasuna taila handietan!

39 urte zuekin



Laguinda

Zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 18
943 20 84 41



#EibarrenBadakagu

YOKASTA
nails

F. Calbeton, 22-24 behea eskuma
📞 603 344 258 - 943 38 61 97



Jerónimo

Fermin Calbeton, 5
943 20 10 14

Jostailu-denda

Jostailuak eta
Otik 99 urtera
arteko jokoak

Zorionak!



Kopina

Ume eta
gazteendako moda



Zorionak!

San Agustin, 3
943 20 41 81

**San Andres
Gozotegia**

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Pastelak, "txikiak",
pastak, rellenak,
bonboiak, tartak...

Enkarguak etxera



#EibarrenBadakagu

Zergatik erosi
herrian?

Buskeraz
primeran!

- ✓ **Denok irabazten dugulako**
- 1** Herriko ekonomiari laguntzen diogulako
 - 2** Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako
 - 3** Gure herria bizirik mantentzen dugulako
 - 4** Komunitatea indartzen dugulako

eskatu, erosi euskaraz!

VI. Gilda lehiaketa egin da aste honetan Eibarren

>>> Martitzen, eguazten eta eguenean egin da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Gilda Lehiaketaren VI. edizioa. Guztira 23 tabernak hartu dute parte, Urkizutik hasita Amañaraino, erdialdetik pasata, eta epaimahaiak taberna horietako gildak probatu ditu hiru egunetan. Zaporea, originaltasuna, aurkezpena eta, aurten estrainekez, kalitate-prezioa hartu dituzte aintzat epaileek gildak baloratzeko orduan. Mireia Alonso Eibarko sukaldari ezagunak, Josu Mugerza Elgoibarko Belaustegi jatetxeakoak eta Ruben Etxaniz sukalde kontuetan adituak osatu dute aurtengo epaimahai eta eurek erabakiko dute gilda onenaren saria zein tabernari eman. Irabaz-

Gildarik gozoena zein den erabakiko da hiru egunotako lehiaketan



leak 150 euroko saria irabaziko du diplomarekin batera.

Lehiaketa atzo amaitu bazen ere, ebazpena hurrengo astean emango da jakitera; izan ere, epaimahaiaren sariarekin batera herritarrek erabakitakoa ere banatuko da, eta sarituen izenak elkarrekin eman nahi ditu ...eta kitto!-k. Gaur bertan jasoko dira tabernetatik bezeroentzat jarritako bozketak-ontziak eta, behin guztiak zenbatuta, orduan jakingo da zein izan den herritarren ustez

lehiaketako gildarik gozoena. Horrek ere 150 euroko saria eta diploma irabaziko ditu.

Irabazleen izenik jakin ez arren, epaimahaiak zertxobait aurreratu digu aurtengo lehiaketaren mailaren inguruan: "Oso pozik gaude lehiaketak izan duen erantzunarekin, are gehiago bizi dugun egoera kontuan hartzen badugu. Neurriak zainduz gero, gauza asko antola daitezke. Mugimendua ere somatu da tabernetan, jendea gogoz dago.

"Tabernariak zoriondu nahi ditugu egin duten lanarengatik"

Eta gilden mailari dagokionez, tabernariak zoriondu nahi ditugu egin duten lanarengatik eta esfortzua-rengatik. Maila polita egon da aurten ere."

Gilda Lehiaketa ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen du Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan. Egitasmo honekin herriko tabernetan ere, euskararen erabilera bultzatzea nahi da, eta horretarako, gilda-lehiaketarekin batera, hainbat ekimen egiten dira urte osoan.

...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketan parte hartu duten tabernei, bozketan jardun duten herritarrei eta epaile izan diren hiru adituei. Datozen egunotan emango ditugu ezagutzera irabazleen izenak.



GABONETAKO ZOZKETAN DOZENAKA SARI

Eskerrik asko rifak erosi eta sariak osatzen lagundu gaituzuenoi

Hemen dituzue ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketatu dituen sarien zenbaki irabazleak eta ordezkioak. **Sarituak 15 eguneko epea izango dute sariak jasotzeko(abenduak 28, 00:00ak arte)**

	SARIDUNA	ORDEZKOA		SARIDUNA	ORDEZKOA
1 El Corte Inglés 500€-ko opari bartela	4162	6482	41 Kantoi Gasolindegia 25€-ko gasolina bonoa	3853	4138
2 Eroski Otarra	0931	2956	42 Azitain Gasolindegia 30€-ko gasolina bonoa	3661	8800
3 Benicoba Patinetea	4290	8945	43 Sosola Gazta	0969	1471
4 Jaz Zubiaurre Frijigailua	5468	1822	44 Zorionak Bi orduko jolasa	7217	9071
5 Jaz Zubiaurre Irabiagailua	5031	4891	45 Zorionak Bi orduko jolasa	3616	9022
6 Jaz Zubiaurre Ite-lehorgailua	6936	8820	46 Zorionak Bi orduko jolasa	4533	1366
7 Jaz Zubiaurre Kafetera italiarra	5450	1146	47 Zorionak Bi orduko jolasa	1549	2040
8 Jaz Zubiaurre Zukugailua	1229	3601	48 Zorionak Bi orduko jolasa	3927	1190
9 Jorge Yega Oral B Vitality hortzetako eskuila	1139	0863	49 Zorionak Larunbat goizeko tailerra	6856	9280
10 Emankor Taldea Black Decker xurgagailua	7249	0871	50 Zorionak Larunbat goizeko tailerra	6306	1482
11 Emankor Taldea Ite-moidatzaila	3658	5136	51 Zorionak Larunbat goizeko tailerra	0737	0824
12 Emankor Taldea Ceccotec pisua	2255	2077	52 Zorionak Larunbat goizeko tailerra	7676	0656
13 Emankor Taldea Moulinex irabiagailua	3983	4153	53 Zorionak Larunbat goizeko tailerra	1829	6808
14 Elbarbus Philips ilea moztekoa	1911	3632	54 Unzaga Plaza Alaria bi lagunentzako	0944	4711
15 Elbarbus Valira termoa	0966	4191	55 Artola Menua bi lagunentzako	1481	2421
16 Elbarbus Taurus txigorgailua	2803	1377	56 Akara Menua bi lagunentzako	1021	0876
17 Industrias Mail Tableta	1917	8823	57 Astelena Bazkaria bi lagunentzako	2857	6124
18 Industrias Mail Bozgorailu eramangaria	6551	1922	58 Izadi Lore zentroa	2275	9096
19 Industrias Mail Ilerako plantxa	7544	1441	59 Askasibar Motela bat eta mikrofibra toaila	9238	3966
20 Industrias Mail Irratia	1956	1693	60 Askasibar Motela bat eta mikrofibra toaila	8591	1505
21 Industrias Mail Solac kafetera	9561	4165	61 Athletic Kamiseta	1561	4729
22 Gerritek Tableta	0908	1591	62 Eibar Sasoian Imbalance klase bat	1556	2494
23 Mugika Harategia 70€-ko erosketa balea	8682	5094	63 Eibar Sasoian Imbalance klase bat	6730	8757
24 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	9092	4241	64 Gratzina Boitso bat	3523	1357
25 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	1447	9116	65 Gratzina Boitso bat	1147	0759
26 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	3820	1941	66 Irei estetika Aurpegi-garbigeta	0835	3999
27 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	2207	5419	67 Eibar Futbol Taldea Kamiseta	1055	4386
28 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	1349	9132	68 Eibar Futbol Taldea Bulanda eta banderola	5016	7800
29 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	8534	1731	69 Eibar Rugby Taldea Baloia eta sudadera	6902	2071
30 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	6734	6802	70 Ikusi Praka eta jertsea	1342	5048
31 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	4293	0512	71 Ikusi Praka eta jertsea	1601	4721
32 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	5083	5457	72 Kopia Joit motela	8658	1703
33 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	0761	8710	73 Kopia Joit motela	2785	7615
34 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	3744	4469	74 Guridi Gomez de Segura botila	4751	5070
35 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	1666	9511	75 Guridi Gomez de Segura botila	4199	0721
36 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	3666	0660	76 Guridi Gomez de Segura botila	3879	4630
37 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	1976	1912	77 Baisi Enate Zuria botila	2359	6204
38 El Cantón Avenida Bi sobre urdaiazpiko	0753	0958	78 Klub Deportiboa Mailola	6117	6211
39 Torrekoa Gasolindegia 30€-ko gasolina bonoa	2428	2033	79 Bordon Zuria bi botila eskegitzekoa	1479	9654
40 Kantoi Gasolindegia 25€-ko gasolina bonoa	1101	7789	80 Ane Campos Gorputz-azterketa	1955	4171
			81 Maider Carrasco Aurpegi-garbigeta eta Hidratatzaia	2848	0754



Begiratu ondo dituzuen zenbakiak eta, saritua izan bada, etorri azkar dagokizun saria jasotzera. Zorionak!



MIKEL ELIZONDO programazioa eta zibersegurtasuna



“Bilatzen badakizu, Googlen erantzun guztiak aurkitu ditzakezu”

Euskadiko Zibersegurtasun Zentroak (Basque Cybersecurity Center, BCSC) CTF txapelketa antolatu du eta Eibarko Uniko ikasleek maila handia erakutsi zuten. Mikel Elizondok, adibidez, hirugarren postua eskuratu zuen, Interneten eta gailuetan dauden mugak eta harresiak ondo gainditzen dituela erakutsiz. Programazio ikasketak egin eta lanean hasi ondoren, Elizondok Zibersegurtasun espezialitatea ikasten dihardu Unian, mundu informatizatu honetan gero eta garrantzi gehiago duen gaia.

Nolako probak egin behar izan zenituen BCSCren lehiaketan?

Lehiaketan zibersegurtasuna ematen duten Euskadiko eskolek hartu zuten parte, baina ez dakit zenbat parte-hartzaile izan ginen guztira, bakoitzak bere etxetik hartu zuelako parte. Besteen gaitzizena ikusten nuen bakarrik, besterik ez. Guztira 13 ariketa egin behar

izan genituen, maila ezberdinetan: kriptografia (teknika matematikoak erabiliz informazioa zifratzeko eta desfzifratzeko zientzia, non hartzaileak bakarrik uler dezakeen mezua eta gainerakoentzat ulertezin bilakatu), esteganografia (mezuak ezkutatzeko kriptologia zientziaren atal bat da eta gehienetan mezuak argazki, erosketarako zerrenda edo

gutun bezala agertzen dira), analisi forentse informatikoa eta hackinga. Astebeteko epea eduki genuen ariketak egiteko.

3. postuan amaitu zenuen proba, baina nola moldatu zinen ariketak egiteko orduan?

Hasieran erraz moldatu nintzen. Errazena iruditzen zizkidan ariketak egiten hasi nintzen, kriptografiarekin eta esteganografiarekin zerikusia zutenak. Orokorrean, toki baten sartu behar zinen pasahitz moduko bat lortzeko, hau da, bandera eskuratzeko. Gero, pasahitz edo bandera hori BCSC-k emandako plataforman sartu behar genuen ariketa ondo eginda zegoen egiaztatzeko. Kriptografia ariketan eurek emandako testuak desencriptatu behar genituen eta errazak ikusi nituen, azken finean testu moldaketak direlako. Beraz, lehenengo sei ariketak azkar egin nituenez, sailkapeneko goi postuetan kokatu nintzen, baina gero, ariketa zailenak egin nituenean, hor geratu nintzen (barreak).

Zein ariketa kostatu zitzaizun gehien?

Inork ezin izan zituen 13 ariketak amaitu. Hackingaren inguruan lau ariketa egin behar ziren (pasahitz bat lortzea, fitxero bat...) eta gehiago kostatu zitzaizkidan. Hala ere, analisi forentse informatikoa egiten pasa nuen denbora gehiena.

Lehiaketarako bereziki presatatu zinen?

Ez, zeren eta klasean gai hauen inguruan ikasten dugu, kontzeptu hauen inguruan jarduten dugu. Zibersegurtasunaren espezialitatea ikasten hasi aurretik programazioaren inguruko bi modulu ikasi ditut eta orain dela urte batzuk programatzaile lanetan hasi nintzen. Beraz, espezialitatean ikasten ari naizenarekin eta aurretik nekienarekin moldatu naiz lehiaketan. Azkenean, Googlen laguntzarekin edonora heldu zaitezke! (barreak).

Googlen daude erantzun guztiak ala?

Bilatzen badakizu, bai.

Zer nolako gaiak lantzen dituzue zibersegurtasunaren espezialitatean?


Alde batetik, zibersegurtasunaren araudia ikasten dugu (ISOak; enpresa batetan informatika filtrazioak badaude, legalki zer egin daitekeen...). Bestetik, sistemen gotortzea (gainetik azalduta, zure sistema informatikoan sartu behar ez den inor ez sartzea), analisi forentse informatikoa, hacking etikoa...

Mundua gero eta informatizatua dagoenez, zibersegurtasunak gero eta garrantzi gehiago du?

Informatikaren munduan sartzen zaren momentuan zibersegurtasuna zein garrantzitsua den ikusten duzu. Aurten konturatu naiz, eta beldurra ematen du, oso erraza dela beste gailu edo sistemetatik gauzak lortzea. Googlen zer bait begiratzearekin eta pare bat gauza instalatuta edukita, ordenagailuak berak lan hori egiten du. Gai horren inguruan zer bait jakin behar da, noski, baina kuriositatea izanez gero erraza da moduak aurkitzea. Arakutzen hasten zara eta bat-batean beste sistema baten barruan zaude. Horrek badu arriskua, gaur egun gero eta gauza gehiago ditugu Internetera konektatuta (erlojuak, etxeko tresnak...) eta, ez badugu segurtasunik jartzen, zabalik dauden atak dira. Etxeko atea giltzarekin ixten dugun bezala, Interneteko atea ere itxi egin beharko genuke.

Zein segurtasun-neurri hartu beharko genuke gutxienez?

Adibidez, edozein gauza erosten dugunean (routerra, kasu), ezarrita datozen pasahitzak aldatu beharko genituzke eta geureak jarri. Gainera, pasahitz horrek ezin dira gure izena eta zenbaki batzuk izan (adibidez, Mikel1234).



Kriptogramak, esteganografia, analisi forentse informatikoa... zibersegurtasunaren munduan arlo ezberdinak lantzen ditu Mikel Elizondok.

Pasahitz zailak jarri behar ditugu, gero eta baliabide gehiago ari direlako sortzen pasahitzak deszifratzeko. Bestetik, ordenagailuan antibirusa eduki beharko genuke, beti aktualizatuta. Eta gogaikarria bada ere, Windows aktualizatuta eduki behar dugu. Asko tardatzen du eta batzuetan ez doa ondo, baina beharrezkoa da. Gero, albistegietan ikusten dugu filtrazioak egon direla eta sistema aktualizatu gabe egon delako gertatu dela.

Orokorrean gure ordenagailuak eta beste gailuak seguru daude, edo ez ditugu beharrezko neurriak hartzen?

“Gero eta gauza gehiago ditugu Internetera konektatuta eta, ez badugu segurtasunik jartzen, zabalik dauden atak dira”

Erabiltzaile arruntak orokorrean seguru gaude, baina web orri susmagarrietan

sartzen bagara (pelikula piratak ikusteko, adibidez), arriskuak egon daitezke. Bestetik, enpresa mundua beste kontu bat da. Enpresek gero eta aha- legin gehiago egiten dute arlo informatikoan seguru egoteko, baina jendea gero eta gehiago saiatzen da euren sistemetan sartzen. Enpresetan filtrazioak, webguneetan sartzeari, informazioa lapurtzeari... asko gertatzen da. Enpresa munduan gauza normala da horrelakoak gertatzea, are gehiago, ia ezinezkoa da ez gertatzea. Beraz, garrantzitsua da horrelakoak gertatzean kaltea ahalik eta murriztena izatea.

Beraz, ardura izan behar dugu, baina burua galdu barik?

Ez dago zertan burua galdu edo enparanoiatu. Ordenagailuek demaseko aukerak ematen dizkigute, Internet zoragarria da, baina kontuz ibili behar gara, gauez kalean bakarrik gabiltzanean kontuz ibiltzen garen moduan. Gauean ez gara ibiltzen edozein tokitara begira ea norbait gure atzetik datorren, baina kontu pixka batekin ibiltzen gara, badaezpada. Ba informatikarekin antzera, erabiltzaile arruntak behintzat. Enpresetan, esan bezala, beste kontu bat da.

ek!
...eta kitto!
Euskara Elkartearen astekaria

Jarraitu gaitzazu
SARE
SOZIALETAN

Bolunburu Oroigarri Krossaren 70. edizioa jokatu da domeka goizian

>>> Bederatzi lasterketa hartuko ditu guztira domeka goizeko atletismo-jardunaldi bikainak. Ohiko tradizioari jarraituz, Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeak antolatzen duen kros proba entzutetsuak adin eta maila guztietako parte-hartzaileei ematen die aukera euren gustoko kirolean jarduteko. Guztira hiru orduetik gora hartuko duen atletismo-saioa goizeko 10:30ean hasiko da, 20 urtetik beherako neskek eta 16 urtetik beherako mutilak batuko dituen 3.800 metroko distantzian jokatu den las-

terketan. Jarraian, 10:55ean, 16 eta 18 urtez azpiko neskek izango dira Masterrekin batera, 2.800 metroko distantzia osatzen. 11:15ean hasiko den hirugarren lasterketan absolutu eta 23 urtetik azpiko emakumezkoen txanda izango da, 18 urtetik eta 20tik azpiko mutilekin batera; aipatutakoek 5.100 metroko luzerako lasterketa egingo dute. Hurrengo 11:40an hasiko da eta hor absolutu eta 23 urtetik azpiko gizonezkoen txanda izango da, 8.500 metroko lasterketa, goizko luzeena, osatzeko.



Azken bost lasterketek gaztetxoekin izango dute hitzordua. Horrela, 12:20an infantil mailako nesken lasterketa jokatu da 1.600 metroko distantzian; eta 12:35ean maila bereko mutilena izango da jokoan, 2.400 metro egiteko. Eguerdiko 12:50ean alebin mailako neskek 1.200 metro-

ko distantzia kubritzen hasiko dira; eta 13:05ean maila bereko mutilen txanda helduko da, azken horiek 1.600 metro egiteko. Azkenik, 13:20an, benjamin mailako neska-mutilek kilometro bateko lasterketari egingo diote aurre, horrela aurtengo Bolunburu Oroigarri krosari amaiera emateko.

Kalamuakoek Gabontraila antolatu dute abenduaren 24rako

>>> Klub Deportiboko Mendi Batzordearen talde horrek Gabontrailaren zazpigarren edizioa antolatu du egun horretarako, azken urteotako ibilbide berdina egiteko asmoarekin: Santa Kurutzetik Kalamua tontorrera igo, Parlamentuan brindisa egin eta, berriro Santa Kurutzetik, Eibarrera jaisteko. Irteera goizeko 08:00etan egingo da Depor aurretik, 15 kilometro eta erdiko distantzia osatuko dute eta, guztira, 750 metroko desnibela edo goranzko metatua izango du trail horrek; bi ordu eta erditik hiru ordura, epe horretan amaitzea aurreikusten da. Doako irteera bada ere, antolaketa-lanak errazteko beharrezkoa da kala-



muakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean izena ematea. Bestalde, ondorengo materiala eramatea gomendatzen da: mendian korrika egiteko oinetakoak, frontala, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko

zerbait; eta, jakina, mendian federatua egotea mesedegarri da.

Ibilbideari dagokionez, T. Etxebarria kalean irten eta, Estaziño kaletik, bariantera igo dute. Asua Erreka parean, bariantearen azpitik Santa

Kurutzera doan GRa hartuko dute, Santa Kurutzen Arratera doan errepidea gurutzatu eta Usartzara joateko, eta han Kalamuara doan betiko bidea hartzeko ezkerretik. Gero Parlamentura jaitsiko dira, brindisa egiteko. Kalamuako lepora bueltatu eta Arratera doan bidea hartuko dute jarraian, Garagoitxi eta Akondia eskualdean lagata. Akondiaren lepura eramango die bide horrek. Akondia baserrira eta San Pedro ermitara jaitsi ondoren, Usartzara ere jaitsiko dira, Santa Kurutzera heltzeko. Gero, Azaldegí baserri albotik Naiorbe baserrira helduko dira eta, GRtik, Eibarrera bueltatuko dira berriro.

Arrate Eibar Eskubaloiko lehen taldeen tinkotasuna lidergoan

>>> Azken jardunaldian ez zituzten partidu borobilenak jokatu, baina hala ere emakumezkoen zein gizonezkoen taldeak irabazle izan ziren etxean jokatu partiduetan eta, jakina, biek ere euren sailkapene-

tako lidergoan jarraitzen dute. Emakumezkoen taldeak 22-18 menderatu zuen Kukullaga-Etxebarri, atsedendian 12-7 aurretik zihola aldageletara joan ondoren. Andoni Perezen taldeak bi puntu ateratzen diz-

kio Bera Bera bigarren sailkatuari eta hurrengo partiduan Ereintza izango dute aurkari. Gizonezkoen taldeak, bestalde, 28-23 irabazi zion Barakaldori, baina 40. minutura arte ezin izan zen aurretik jarri marka-

gailuan. Ohikoa bihurtu denez, Lander Casado izan zen goleatzaile nagusia, "min hartuta egon arren". Fernando Fernandez taldeak bost puntu ateratzen dizkio Sugraf Zaragoza bigarren sailkatuari

Ipuruako gimnastek bikain amaitu dute aurtengo bigarren seihiabetekoa

>>> Ipurua klubeko senior mailako taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna da eta, horrez gain, Euskalgym txapelketa eta Gasteizko 2. Open Torneoa bereganatu ditu. Nahia Arguiz, Izaro Altuna, June Heredero, Indira del Pino eta Sara Arangurenek osatzen duten boskotea behin eta berriz garaile izan da azken aldian defenditzen duten muntaiarekin. Valladoliden jokaturako Espainiako Koparen 3. fasean, zazpigarren sailkatu ziren aparatu bat jausi

zitzaielako: "Huts egite txikiak ere garesti ordaintzen dira hain maila altua duten taldeen artean".

Oinarrizko kadete taldea, bestalde, laugarren izan zen Valladoliden bertan jokaturako Espainiako oinarri taldeen txapelketan. Guztira 125 taldek hartu zuten parte eta Haizeder Arguiz, Maialen Apraiz, Emile Zamakola, Elene Ramirez, Naroa Alonso, Elene Lazpita eta Nahia San Martinek osaturako taldeak meritu handiko bere lehenbiziko diploma lortu



zuen horrelako txapelketa batean. Azkenik, oinarri mailako bakarkako Kopa ere jokatu zen Valladoliden, June Araujo eta Ane San Martin jubenilen parte-hartzearekin. Horrekin ixten da maila horretako gim-

nasten denboraldia, emaitza paregabearekin: kadete taldeak Euskadiko eta Gipuzkoako txapelakjanzteaz gain, jubeniletan Araujo Euskadiko txapeldun geratu da eta Ane San Martin txapeldunazpiko.

XXXII. Gabon Kopa antolatu du biharko Eibar Igerixanek



>>> Urterokoari jarraituz, Ipuruako igerilekuek Gabon Kopako edizio berria hartuko dute bihar arratsaldean. Egitaraua 15:00etatik aurrera osatuko da: 15:15ean jolasak eta puzgarriak izango dira, 15:45ean beroketa-saioa izango da eta 16:15etik aurrera Gabon Kopak izago dituen proba nagusiak.

Bestalde, Eibar Igerixaneko **Iker Calvo eta Miren Galdos** igerilariak Castellon jokatu zen

Nazioarteko Castalia XVIII. Sarian hartu zuten parte. Calvok Euskal Herriko Federazioaren izenean lehiatu zuen 100 bizkar, 100 eta 200 libre eta 200 estiloko probetan; eta Galdos, Gipuzkoako Federazioaren izenean, 50, 100 eta 200 bizkarran eta 100 librean hartu zuen parte. Iker Calvo serie B taldean sailkatu zen 200 estiloko proban, azkenean laugarren postua eskuratzeko.

Urbat Urkotronik waterpoloko talde guztiak garaile izan ziren


>>> Gizonezkoen talde nagusiak, gainera, Getxo lehen sailkatuaren etxean lortu zuen meritu handiko garaipena. Bizkaitarrek talde sendoa osatu dute denboraldi honetarako eta eibartarrek gogotik sufritu behar izan dute garaipena eskuratzeko. Nortasun, borondate eta talde-lan handiari esker, neurketa osoan atzetik joateari ondo eutsi zioten Davide Cerchirenek eta amaieran irabazteko gauza izan ziren: 2-0, 7-4 eta 8-6ko aurreneko hiru zatietako emaitzei azkeneko



Zaragozako Polo Amigos torneo irabazi zuten eibartar gazteenek.

9-10ekoak ipini zion ginga eibartarren lanari.

Emakumezkoen Urbat taldeak, bestalde, 8-3 irabazi zion Lautadari; eta gizonezkoen bigarren taldeak garaipen oraindik argi goa eskuratu zuen Mungiaren aurrean (23-3). Eta, azkenik, infantil misto mailako Urbatek 17-6 irabazi zion Easori. Aurretik, talde gazte horrek Zaragozan jokatzeko den Polo Amigos estatu mailako torneo entzutetsua bereganatu zuen, Izei Sologaiaren debutean entrenatzaile bezala.



XVII. mendeko kantoral bat jarriko dute bihar ikusgai San Andres elizan

Aurten, Eibarko herriaren 675. urteurreneko ekitaldien barruan, San Andres parrokiako ondarearen altxorretako bat jarriko da erakusgai bihartik aurrera. Elizak, beste bitxi askoren artean, kantoral bilduma bat du XVII. mendekoa, hamabi alez osatua. Ale horietako bat izango da, zaharberrituta dagoena hain zuzen, jendaurrean jarriko dena, Udaleko Ego Ibarra batzordeak elizako parrokoari egindako proposamenez. Ego Ibaratik azaldu dutenez, "kantoralak 54x37 zentimetroko neurria du, beraz, nahiko handia da. Azala eta kontrazala

egurrezkoak dira, apaingarriak brontzezkoak eta ixteko brotxea metalezkoa. Musika-notazioa karratua du. Horrelako elementuak 'facistol' izeneko atril handi batean jarri ohi dira, eta parrokiak halakorik ez duenez Donostiako Eliz Barrutiko Artxibo Historikoak utzitako atril berezi bat ekarriko da San Andres elizara".

Bestalde, Jon Bagüés musikologo eta artxibozaina bihar etortzekoa zen, era horretako kantoralei buruz azalpenak emateko, baina pandemiaren egoera dela eta hitzaldia urtarrilaren 22ra atzeratu da.



Tor magoak ikuskizun berria aurkeztuko du gaur Errebal Plazan

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da gaur Tor magoak Eibarren eskainiko duen ikuskizun berria. Ez da sarrerarik ordaindu behar baina gonbidapena behar harko da ikuskizunera sartzeko.

Gonbidapen asko banatu arren, gutxi batzuk gelditzen dira oraindik eta Errebal Plazan bertan banatuko ditu...eta kitto! Euskara Elkarteak, 100 laguneko aforoa bete arte.



Bi erakusketa berri Portalean

Gaur arratsaldean inauguratuko dituzte bi erakusketaaldi berean Portalean. Batetik, Alicia Martín Lópezen "Cosmologías", formatu handiko lanek osatzen duten erakusketa, eta, bestetik, Viviane Strauben "Muga/Frontera" izenburuko. Bigarren hau Eibarko muga egun batean zeharkatzen duen performance baten instalazioak eta erdiko zatiak punturik muturreneta hartutako lau argazkiak osatzen dute. Biak urtarrilaren 16ra arte egongo dira ikusgai, lehenagotik zabalik zegoen Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen erakusketarekin batera. Martitzenetik domekara bitartean bisitatu daitezke, 18:30etik 20:30era.

Poesia errezitaldia gaur Untzagan

Gaur 19:00etan "Poesia eres tu" poesia taldeak errezitaldia egingo du Untzagako jubilatuetan (B gela polibalentean). Araceli Bonok aurkeztuko duen saioan Ernesto Barrutia, Manoli Corrales, M^a Eugenia Cámara, Rafa Herce, Prisci Gil, Elena López, Elisa López, Maria Jesús Murillo eta Mari Perez poetek hartuko dute parte, bakoitzak aukeratutako poemekin, eta agurra M^a Jesús Sáezek egingo du. Sarrera libre izango da, joan nahi duen edozeinentzat.



Irati Goikoetxea Harixa Emoten saioan izan da

Idazle beasaindarra "Herriak ez du barkatuko" bere lehen eleberriarekin etorri da asteon Eibarrera, Harixa Emoten literatura tertulian parte hartuz. XXII. Igartzia Saria irabazi zuen Goikoetxeak liburu horrekin. Hurrengo saioa urtarrilaren 11n izango dute tertuliakideek; ordurako Nerea Arrien idazlearen "Jende likidoa" liburua irakurri beharko dute.



Hodei guztien gainetik RAMON BEITIA



Jose Antonio Larrea Alberdi



EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

ZURE LANA
ESKERTUZ,
BIHOTZ
BIHOTZEZ



2021/12/10

CALIXTO ULACIA BERISTAIN

(2021-11-20)



*"Gogorra izango da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean ez zaitugu, ez, ahaztuko"*

MAITASUNEZ, ZURE FAMILIA

ESKERRIK ASKO GURE NAHIGABEAN LAGUNDU GAITUZUEN GUZTIOI.



ANTONIO ALBERDI ATXA

3. URTEURRENA (2018-XII-8)




*"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan
dituzun ilusioa eta bizipoza"*

ETXEKOAK




Pedro M^a Garma Quintana

5. URTEURRENA: 2016/XII/13



*Gure ondotik aldendu zinela bost urte bete direnean,
zureganako gure maitasunak hor jarraitzen du.
Ez ditugu inoiz ahaztuko zure ilusioa eta bizipoza.*

ZURE FAMILIA



Jose Antonio Larrea Alberdi

(1949-02-24 / 2021-12-10)




Beti egongo haiz gurekin!

HIRE KUADRILLAK



Ea ahal duzun labirintoan sartu eta irteeraraino joan ibilbidean dauden bost laukitxoetatik pasatuta.



9	6	5	2	4			
			6			3	2
1							
		9		7	2		
4	8					7	3
		3	4		9		
							4
7	9		1				
		9	4	8	1		7

4	9	1	8	6	5	2	3
5	2	8	1	3	7	6	4
8	6	1	5	9	2	3	7
3	7	2	4	9	1	8	5
1	5	9	3	8	4	7	2
2	3	7	6	4	1	5	8
8	1	2	3	7	5	9	4
5	4	3	2	1	8	6	7

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

4	9	1	8	6	5	2	3
5	2	8	1	3	7	6	4
8	6	1	5	9	2	3	7
3	7	2	4	9	1	8	5
1	5	9	3	8	4	7	2
2	3	7	6	4	1	5	8
8	1	2	3	7	5	9	4
5	4	3	2	1	8	6	7

soluzioa

	1		3	5			
			1				3
3	5	7					
			7			9	8
	4		3	1		2	
7	6			2			
					2	8	6
2			7				
	5		9			4	

Abenduak 17/23

BARIXAKUA 17

MAGOA

17:30 Tor Magoa, ...eta kitto!
Euskara Elkartearen eskutik.
Doan, gonbidapenarekin.
Errebal Plazia.

EIBART AZOKA

17:00 Eibart artisautza
azokaren irekiera. Urtarrilaren
5era arte (abenduak 24 eta
25 eta urtarrilak 1 itxita).
Ordutegia: 11:00/14:00 eta
17:00/20:30. Untzaga.



AURKEZPENA

19:00 Etxebizitza Asanblada.
Deba bailarako Kontseilu
Sozialistaren eskutik. Arrate
Kultur Elkartea.

POESIA

19:00 "Poesia eres tu" poesia
errezitaldia. Sarrera librea.
Untzagako jubilatuek etxea
(polibalente B).

MUSIKA

19:00 "Eibarko Kantak"
Ustekabe Fanfarrearen
diskoaren aurkezpena.
Coliseoa.

ZAPATUA 18

AZOKA

09:00/15:00 Bigarren eskuko
Gabonetako Azoka. Errebal
Plazia.

AZOKA

11:00/15:00 Truke eta doako
azoka. Naluaren eskutik.
Untzaga.

IGERIKETA

15:30 XXXII. Gabon Kopa.
Ipurua kiroldegia.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urteko haur
eta familientzat. Ipurua
kiroldegian.

ERRONKA SOLIDARIOAK

18:00/21:00 Erronka solidariak,
musika, zozketak... Crossfit
Eibarren eskutik. Untzaga
(udaletxe parean).

LIBURU AURKEZPENA

19:00 "SobreHumanos".
SUMUM GKE-ren alde. Arrate
Kultur Elkartea.



DOMEKA 19

ATLETISMOA

10:30 LXX. Bolunburu Oroigarri
Krossa. Bederatzi lasterketa,
azkena 13:20an.

MUSIKA

11:00 Usartza Txistulari
Taldearen kalejira, Legarretik
hasita (Legarre, Ego-Gain-
Untzaga).

MUSIKA

12:00 Untzagako jubilatuen
abesbatza. Karmelitak.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika
Bandaren Gabonetako
kontzertua. Zuzendaria:
Andoni Vazquez. Coliseoa.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzeko
aukera. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 20

BIDEO-FORUMA

18:30 Emakumeen Istorioak:
Lola Flores. Pagatxaren
eskutik. Dinamizatzailea:
Patricia Perex Coto. Portalea.

MUSIKA

20:15 Sostoa Abesbatzaren
Gabonetako kontzertua,
Eibarko Koro Gaztearen eta
J.B. Gisasola Musika Eskolako
koruaren laguntzarekin.
San Andres parrokia.

EGUAZTENA 22

DANTZA

19:00 "Horra Horra Biraka",
Gabonetako dantza
ikuskizuna. Errebal Plazia.



ERAKUSKETAK

Abenduaren 24ra arte:

– "40 AÑOS DESPUES",
Jose Juan Unzueta
zeramika-lanak (Topaleku)

Abenduaren 18tik 23ra:

– UNTZAGAKO ESKU-
LAN TALDEAREN LANAK
(Untzagako Jubilatuek Etxea)

Urtarrilaren 9ra arte:

– "ONDAREARI BEGIRA"
(Armagintzaren Museoa)

– EIBARKO KLUB
DEPORTIBOKO ARGAZKI
TALDEA (Portalea)

Urtarrilaren 16ra arte:

– "COSMOLOGÍAS",
Alicia Martín Lopez
(Portalea)
– "MUGA/FRONTERA",
Viviane Straub. (Portalea)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

IKUSKIZUNA

17an (barixakua)

20:30 Ermua Antzokia

Kukai Dantza Taldearen
"Hinuy Illa" lana.
Sarrionandiak 1995ean
argitaratutako poema
liburutik aukeratutako
poesietan oinarrituta.
Kukai Dantzak, Tanttaka
konpainiaren laguntzaz,
egokitutako lana.



ELGOIBARREN

HERRI KIROL JAIALDIA

18an (zapatua)

12:00 Ikastola

Joseba Arrizabalaga eta Jesus
Mari azpiatzuren omenez.
Hodei Ezpeleta, Xabier
Zaldua, Goizeder Beltza eta
Ernesto Ezpeleta "Bihurri"
aizkolariak. Ousmane Dramé,
Nerea Egurrola, Lucia Orbe
eta Carlos Aretxabaleta.



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Maite Ormaetxea.** 59 urte. 2021-12-2.
- **Iñaki Diaz Guenaga.** 67 urte. 2021-12-2.
- **Montserrat Baglietto Arana.** 83 urte. 2021-12-2.
- **Prudencia Agirrezabal Seguro.** 86 urte. 2021-12-4.
- **Millan Larrañaga Gabilondo.** 55 urte. 2021-12-4.
- **Roberto Altzerreka Olabe.** 88 urte. 2021-12-6.
- **Maria Luisa Hernando Postigo.** 93 urte. 2021-12-6.
- **Juan Hernandez Garcia.** 89 urte. 2021-12-7.
- **Hector Nivaldo Romero Lozano.** 57 urte. 2021-12-9.
- **Isabel Lejarriturri Uribarri.** 86 urte. 2021-12-9.
- **Miguel Maria Larrañaga Beitia.** 72 urte. 2021-12-9.
- **Jose Antonio Larrea Alberdi.** 72 urte. 2021-12-10.
- **Jose Alberto Barrenetxea Burrutxaga.** 72 urte. 2021-12-13.
- **Rodolfo Arriaga Capetillo.** 78 urte. 2021-12-14.

Farmaziak

- BARIXAKUA 17**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- ZAPATUA 18**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 19**
EGUNEZ | Elortza (j. Gisasola, 18)
- ASTELEHENA 20**
EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)
- MARTITZENA 21**
EGUNEZ | Mendiñeta (Urkizu, 6)
- EGUAZTENA 22**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 23**
EGUNEZ | Elortza (j. Gisasola, 18)
- BARIXAKUA 24**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2021ean,
Izpizua (Ibarkurutze, 7)

Jaiotakoak

- **Nahia Ramos Alonso.** 2021-11-5.
- **Danel Matias Acosta.** 2021-11-16.
- **Julen Alvarez Silva.** 2021-11-16.
- **Sinam Bakkali Ziani.** 2021-11-17.
- **Mouhamed Thiare Ndong.** 2021-11-18.
- **Imran Belarby.** 2021-11-22.
- **Luka Rodriguez Garcia.** 2021-11-23.
- **Izar Muñoz Carrasco.** 2021-11-26.
- **Ekain Imedio Vazquez.** 2021-11-27.
- **Mara Pacheco Mujanovic.** 2021-11-28.
- **Markel Astiazaran Sanchez.** 2021-11-28.
- **Joaquin Lopez Benitez.** 2021-11-28.
- **Iker Lazpita Fernandez.** 2021-12-1.
- **Ander Pompeyo Golenko.** 2021-12-1.
- **Neyla Jebari Benslaiman.** 2021-12-2.
- **Bachir Medhi Fikou.** 2021-12-3.
- **Zakaria Norddine Mirat.** 2021-12-4.
- **Yuri Gonzalez Diaz.** 2021-12-4.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 20:30

“El refugio”

Zuzendaria: Macarena Astorga



2 ARETOA

- **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 20:30

“El lodo”

Zuzendaria: Iñaki Sanchez Arrieta



ANTZOKIA

- **18an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 20:30

“Spider-Man. No way hom”

Zuzendaria: Jon Watts



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **MAIDER**, astelehenian 4 urte bete zenduazena. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.




Zorionak, **HINAS**, bixar 9 urte beteko dozuz-eta!!! Jarraitu beti bezain alai eta jator! Musu eta besarkada erraldoiak famelixakuen partez.



Zorionak, **MIREN**, hillaren 11n 10 urte bete zenduazena. Patxo haundi bat etxeko guztion partetik.



Zorionak, **JON** Berrizbeitia, 3 urte bete dozuz-eta. Patxo potolua etxeko guztion eta, batez be, Danel anaixa eta Unai lehengusuaren partez.



Zorionak, **MARINA!!** Bixar 3 urte beteko dozuz-eta! Primeran pasa zure eguna, famelixakuen artian. Musu potolo bat famelixakuen partez.



Zorionak, **JULE**, hillaren 12xan 6 urte bete zenduazena. Patxo potolua maitte zaitugun guztion partez. Segi alai eta jator.



Zorionak, **IBAI**. Aitta, ama eta Juneren partez! Gure zezentxuak hillaren 10ian 2 urte bete zittuan-eta.



Zorionak, **HEGO!!** Astelehenian 5 urte bete zenduazena! Segi beti bezain txapeldun! Musu haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **MAYA!** Gure etxeko nagusixak 5 urte betetzen dittu-eta. Illargiraiño eta buelta maite zaitugu. Etxekuen partez.



Zorionak, **MADDI!** Domekan 7 urte eder beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure neba Aiurren partez. Segi holan!!



Zorionak, **HAIZEA!!** Domekan 4 urtetxo bete zenduazena!! Musu potolo bat famelixako guztien partez eta segi beti bezain irribartsu!! Askoko maite zaitugu!!



Zorionak, **MARTIN**, martitzenian 5 urte bete zenduazena. Patxo haundi bat guztion eta, batez be, bere arreba Nikolen partez.



Zorionak, **LUR**, hillaren 24an 5 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Naike, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, **ANE!!** Hillaren 15ian 11 urte egin zenduazena!! Ederto ospatu zenduan urtebetetzia, ezta? Lagunak, famelixia... Patxo asko etxeko guztien partez.




Zorionak, **MALEN!!** Astelehenian gure txiki-haundixak 5 urte egin zittualako. Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, **URKO**, txapeldun, hillaren 11n 6 urte egin zenduazena. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, **NAIA**, bixar 10 urte beteko dozuzelako. Amama eta aitxitaren partetik.



Zorionak, **MANEX!** Astelehenian urtetxo bete zenduan-eta. Musu erraldoi bat famelixaren partez.



Zorionak, **UR** Agote, hillaren 8xan 12 urte bete zenduazena. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MALEN** Urizar, hillaren 15ian 13 urte bete zenduazena. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **LAIA**, datorren martitzenian 9 urte egingo dozuz-eta. Oso ondo pasa! Zure famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NORA**, neska haundi!!! Hillaren 20xan 5 urte egingo dozuz! Topera disfrutau! Milla patxo famelixaren eta, batez be, zure ahizpa Malenen partez.



Zorionak, **DONATA** (atzo urtiak egin zenduazena) eta **NEREA** (domekan beteko dozuz). Musu bat famelixakuen partez.

Iragarki laburrak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta koina. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Lokala/gela alokagai Ugan Klub-ean. Fisioterapiarako edo masajeak egiteko aproposa. Tel. 943820452.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642786320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 643929554.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta lorezain lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 645956966.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Tel. 643982534.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642787630.

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako edo taberna edo jatetxeetan lan egiteko. Tel. 603568325.
- Gizonezkoa eskaintzen da zaintza lanetarako eta eraikuntzan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 692932984.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 641821288.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 603347268.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan (esperientzia hotelean) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642846905.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631425686.

6.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da jornada osorako Eibarren. Currículuna bidali: eibarkafe@gmail.com
- Ileapaintzailea behar da. Esperientzia baloratuko da. Tel. 943254776.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 661955980.
- Lan egiteko honako hiru perfilak behar ditugu. Ezagutza informatikoak dituen (net, Java, Python eta Redes lengoaietan aditua), elektromekanikan aritua eta, azkenik, komertzial bezala. Bidali curriculumak: urkotronik@urkotronik.com. Berehala hasteko moduan.
- Modeloa behar da (mutila/neska) Giza Irudiaren marrazki klaseetarako. Tel. 622053933. Maitte.

- Estetizista behar da Eibarko ileapaindegi baterako. Esperientziarekin. Lan giro bikaina. Tel. 943208125 eta 678674250.
- Ileapaindegiako ofiziala behar da Eibarko ileapaindegi batean. Jornada osorako. Berehala hasteko. Tel. 943246225.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Curriculumak bidali: eibarharategia@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2.. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasteko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia oparitzen da. Prezioa adosteko. Tel. 667549101.
- Seta M tamainako bi neopreno, C-skins markakoak salgai. 619673058. Gorka.
- 20 kaxa White detergente salgai, elikagaien industriarako eta osasun arloetarako egokia den detergente profesionala, edozein motatako orbanak kentzeko bikaina. 619673058. Gorka.



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

+ osasun gida

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Deglutzio atipikoa	TDAA
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

 838200124
kolegiatu zerbaita

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G211907 kolegiatu) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Okulistak

 **Recalde**
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

· **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



 BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinikak

Nerea Arregi (123 Kolegiatu Zbka.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu Zbka.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu Zbka.)

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GUREZ ETA ARRATZALDEZ
Urkiizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

PODOLOGOA

 **Moider
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu Zbka

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Xoparitu eibar

Txartela
JADA
ESKURA-
GARRI



erosieibarren.eus

T. 747 400 919



DENDAK, ZERBITZUAK, OSTALARITZA ETA AISIALDIA
EIBARKO 180 ESTABLEZIMENDU BAINO GEHIAGO

BULTZATU HIRIA

Txartelaren zenbatekoa hainbat zatitan banatu daiteke. Iraungitze data gabe



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

FORNEN ARLOAN
ETIKETATZE SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



RURAL KUTXA